

Jon Santacoloma MGEP-MUko irakasleak diseinuari buruzko hainbat sari internazional jaso ditu bere kanpo argiztapeneko proiektuagatik

2008/01/10

Arrasate, 2008ko urtarrilean. Mondragon Goi Eskola Politeknikoko irakaslea den Jon Santacolomak hainbat sari estatal eta nazioarteko jaso ditu egin duen azken proiektuarekin: "Kanpazar" kanpo argiztapena, B.Lux taldearentzat egina. Santacoloma, 2004az geroztik, Industria Diseinuko Ingeniaritza Teknikoko irakaslea da Mondragon Unibertsitatean, eta zeregin hori eta Ideilan enpresan egiten duen lana bateratzen ditu, horko fundatzailea eta zuzendaria delarik.

"Kanpazar" kanpo argiztapenerako proiektuarekin, MGEP-MUko akademikoak industri diseinuaren arloan Estatuan dauden sari nagusietako bi jaso ditu, baita ere maila internazionalako beste hainbat. Espainiako Diseinuaren Profesionalen Elkarteak Industria Diseinuko AEPD 06 saria eman dio, diseinugilearen zein diseinatutako produktuaren errekonozimendu gisa. Halaber, 2007ko Delta sarietako Urrezko eta Zilarrezko Delta sarietarako izendatu dute, Estatu Batuetako International Design Awards for Architecture, Interior, Fashion, Graphic and Product Design sarietako Kanpo Argiztapeneko lehenengo saria lortu du, eta "Interior Design" aldizkari amerikarrak Kanpo Argiztapenaren lehenengo saria eman dio 2007ko Best of the Year Award sarietako lehenengoa eman dio Kanpo Argiztapenaren kategorian.

Konpromisoa ekodiseinuarekin

Jon Santacoloma irakaslearen proiektua oso berritzailea da, balio sortzaile eta estetiko handia du eta ekodiseinuaren baldintzarik zorrotzenak betetzen ditu, material birziklagarriak, ez toxikoak eta berrerabilgarriak bateratzen baititu.

Pinu erako forma bereziari esker, erraz nahas daiteke naturarekin. Izan ere, Santacolomak azaldu duenez, proiektuaren forma eta izena Gipuzkoako paraje bikaina den Kanpazar gainari buru emanez ezagutzen duen pinu handi batean oinarrituta dago. Ideia horretatik abiatuta, 2007an hainbeste saritu den produktu natural bat garatu zen, zeinetik bera bezain naturala den argia isurtzen den.

Irakasleak sortu duen argiteria inflexio puntua da kanpo argiztapenaren diseinuaren arloan. Zalantzarik gabe, iraultza formala eta kontzeptuala ekarri du sektorerara, eta horrek hainbat sariren errekonozimendua eragin dio.

